

Bere naziotasuna sostengatzeko herri berbereak bi gako ditu: edozein Estatutan gutiengo bat da, eta talde guztien arteko batasun antolaturik ez du, abertzaletasun baten bidez (horrelako kontzientziarik dadinean, noski) politika nazional bakar bat egiteko. Estatu zanpatzaileek beren alde dute batasun-ez hori. Kultura nazionalarentzat, berriz, herria nortatzen duen hizkuntza, eskualdez eskualde, herriz herri hizkelgitan berezia dago. Egungo egoeran, berberara ez da komunikaziorako tresna egokituia, ez horretarako arabea darabiltelako bakarrik, ulertu ere ezin baitute berbereek elkar ulertu. Etorkizuna aski iluna da, beraz. Bestalde, Algeriako egunkari ofiziosoa idatzitako «preservar el patrimonio cultural del pueblo argelino, con toda su riqueza y diversidad» irakurtzean, berehala ekartzen dizkigute burura hitz horiek gure garai beltzetako promesa ederrak.

Beharbada, ondoko asteetan ez dugu Kabiliatik albiste berririk izango, Gobernu «salbatzaile» hari esker. Edo, nork daki, horrela haserretu den herriak oraintxe hasten du bere salbabidea. ■ *Joseba Intxausti.*

Kazetaritza eta karneta

Kazetarien Elkarte Ofizialak berrikitan urrats batzu egin ditu Francoren garaiko sistema hertsia bereraikitzeko. Horren arabera, kazetaritzan lan egiteko nahitaezkoa litzateke periodismo-litzentzia.

Burua lehengo lepotik du Kazetarien Elkarte honek. Kazetari titulua beharrezkotzat jotzen du kazetetan lan egiteko. Alegia, kazetel lanbiderako «Escuela Oficial de Periodismo»tik lehen eta Unibertsitatetik orain igaro beharra dago. Bale. Baina ez ahantz bi gauzatxo: bata, eskola hori politikazko galbahe izan dela frankismo-pean; eta bigarrena, karnetak ez duela informazio askerako inolako laguntzarik eskaintzen.

Lehen puntua nekez eztabaida daitekeelakoan nago. Baina bigarrena? Honi buruz, «International Press Institute» delakoaren Zuzendariak, Galliner jaunak alegia, 1976an Barcelonan «La Vanguardia Española» egunkariari egin deklarazio batzu aurkitu ditut nere paper zaharren artean. Honela zioen: «En mi opinión el carnet de periodistas que ustedes tienen —y que ellas (Asoziazioak) tramitan— sirve más para mermar su libertad que para favorecer su libre información».

Baina hasieran aipatu dugunez, lehengora itzuli nahi du Asoziazioak atzera. Zer esan? Hori komentatuz V. de la Sernak «International Herald Tribune» delakoan esan duena: «España se convertiría en la única nación democrática e industrializada en el mundo con un sistema obligatorio, compulsivo para los periodistas,

uno de los métodos más efectivos de represión de la libertad de prensa».

Bide hori edozein kazetagitzarako kaltegarri bada, are okerrago da euskal prentsari begira. Ez Leoiako ez inongo Unibertsitatek prestatzen du inor *euskal* kazetaritzarako. Eta, bestetik, euskal prentsan bokazioa eta profesionaltasuna duten gehienek ez dute titulurik. ■ *Joan Larrinaga.*

Erich Fromm

Hil berria dugu Erich Fromm, *El miedo a la libertad*, *El arte de amar* eta beste hainbat liburu interesgarriren autorea. Egia esan, ez dut uste munduko arrastoa utziko duenik giza pentsamenduaren historian. Hala ere, aski ezaguna denez, batez ere gaurko gazteen artean —azken urteotan adoleszenteen formazioari begira argitaratu diren liburuen artean, nekez aurkituko da bat Fromm-en texturen bat edo beste ez dakarrena—, ongi iruditu zait, pentsalari honen lanaren gainean iruzkin labur bat egitea.

E. Fromm psikoanalista zen; psikoanalizatzaile zeukan behintzat bere burua. Ez zen, ordea, psikoanalista «ortodoxoa»: Freudiar berri edo neo-freudiarren artean jartzen dute, H. Sullivan eta K. Horney-rekin batera. Freud-en kontzepturik oinarritzkoenak erabiltzen bazituen ere (esate baterako, *nia*, *Edipoa*, *super-nia*, *inkontzientea*, etab.) edukin eta esanahi desberdina hartzen zuten Fromm-en idazkietan. Psikoanaliaren barruan funtsezko garrantzia duten zenbait puntu-tan ez zen Freud-en pentsakerakoa. Adibidez:

— Freud-en nortasun-teoria, gorputzaren, sexualitatearen, instintuen gorabeheren inguruan eratuta dagoen bitartean, gizartearen eragina ia ahazturik gelditzen delarik, faktore sozio-ekonomikoei ematen die lehenatasuna Fromm-ek nortasunaren eraketan.

— Gizabanakoaren eta gizartearen arteko harremanari buruz ere, iritzi ezberdinekoak dira Freud eta Fromm. Freud-engan aski estatikoa da erlazio hori: alde batetik gizakia, bere instintu eta guzti; bestetik gizartea, instintu horiek ase nahiz erreprimitu egiten dituen. Fromm-entzat, aldiz, errepresioa ez-erik, kreatzailea ere bada gizartea gizakiaren garapenari begira: azken batez gizarteak egiten du, neurri handi batetan, gizona.

— Erljioaren zentzuari dagokionez, Freud-entzat erlijioa neurosia da. Fromm-ek buelta ematen dio arazoari, eta neurosia erlijio-era berezia dela esaten digu. Bestetik, ez du onartzen erlijioa beti neurosia denik. Bi erlijio-mota berezten ditu: erlijio autoritarioa eta erlijio humanista. Lehenengoa neurotikoa izango litzateke, baina ez bigarrena.

Freud-en eta Fromm-en arteko iritzi-desberdintasuna ez da aipatu